



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Berrikuntzarako eta Jakintza Giza Departamentua
Departamento para la Innovación y la Sociedad del Conocimiento



Legazpi Bai!

Proiektua

2006ko apirila

Iñigo Lasherasek (MIK.S.Coop.) eginiko dokumentua

©MIK 2006

AURKIBIDEA

- **Proiektuaren sarrera** 3. or.
- **Oinarri teorikoak eta kontzeptualak:** 4. or.
Ezagueraren Hiriak eta Ezagueran Oinarritutako Garapena
- **Proiektuaren ikuspegia**
 - **Helburuak** 5. or.
 - **Proiektuaren eskema orokorra** 5. or.
- **Eskema orokorraren deskribapena eta edukia. Orain arte egindako lana**
 - **Prestakuntza (0. fasea)** 5. or.
 - **Helburuak**
 - **Egindako lana**
 - **Kapitalen Sistema (1. fasea)** 7. or.
 - **Helburuak**
 - **Egindako lana**
- **Emaitzak (orain artekoak)**
 - 1. **Atariko diagnosis** 11. or.
 - 2. **Etorkizuneko garapenerako Legazpi Bai! ereduaren proposamena** 20. or.

Proiektuaren sarrera

Legazpi Gipuzkoako udalerrria da, eta probintziako eta EAE osoko **industri garapenaren muina** irudikatzen du. XX. mendearen bigarren zatian industri garapenaren jarraibideak zehatz-mehatz bete zituen, horren adierazpen guztietan: industrian, hirigintzan, enpleguan eta gizarte garapenean. Herria **Patricio Echeverría SA** enpresarekin batera garatu zen, eta paralelotasun horretan, enpresak krisia izan zuenean, gainbehera gertatu zenean, eta erabat murriztu zenean, aldaketa horrek langabezia tasa handiak, krisi ekonomikoa eta identitate krisia eragin zituen herrian.

Legazpi ahalegin handia egin du orduz geroztik suspertzeko, eta **Lenbur** Proiektua da suspertze horren sinboloetako bat, herriaren identitate zeinu diren ondarea eta industri kultura berreskuratzen baititu; ildo horretatik, Lenbur Proiektuak Lenbur Fundazioko (1998)¹ partaide diren enpresen interesa piztu du, eta aisialdirako eta museoetarako eremuak eta jarduerak garatzeko Europako funtsak erakarri ditu. Bestalde, Legazpi izan da Euskal Herrian **Agenda 21** eredu bereganatzen lehenengoetarikoa (1998), 'Aalborg-eko Gutuna' edo 'Europako Hirien Iraunkortasunerako Gutuna'² hartu baitu tokiko garapen iraunkorrerako erreferentzi eredutzat.

Aurrekari horien eta azken 10 urteotan udalerrriaren **testuinguru sozio-ekonomiko berriaren** bereizgarri diren zeinu objektiboen ildotik (globalizazioa eta industria tradizionala deskokatzeko arriskua, ekonomiaren terziarizazio prozesua, beheraldi demografikoa, gazteen mugimendua hiriburuetarantz, tokiko merkataritzaren geldialdia, deserrotzea, toki jakin batekoa izateak ematen duen identitatea eta harrotasuna ez izatea...), kontuan hartuz EAEko errealitatearen zati handi bati ere badagozkiola bereizgarri horiek, Legazpiko udalerrriak, udalbatzaren bitartez, etorkizuneko garapenaren gaia aztertze beharra planteatu du, eta goian adierazitako errealitate eta arazo horiei aurre egiteko beharra ere ikusi du.

Testuinguru horretan sortu da MIK S.Coop. (MCC Taldeko Ikerketa Zentro Korporatiboa eta Eusko Jaurlaritzako Zientzia eta Teknologia Zentroen Euskal Sareko kidea)³ kooperatibarekin batera lan egiteko aukera, udalerrriaren eta lurraldearen garapenarekin lotutako arazo hori aztertze eta etorkizuneko garapenaren lerroak eta aukerak ezartzeko eta sakontzeko, baina hori bai, ikuspegi desberdin batetik, '*Ezageran oinarritutako garapenetik*' hain zuzen ere. Ikuspuntu horren bidez, Legazpi bere identitatea eta identitate horren balio gidariak kontuan hartuta prestatu behar du bere jardunbidea, abiapuntu horretatik abiatuta eta modu sistemikoan eta parte-hartzailean oinarrituta eraikitze etorkizuna.

Proiektuaren printzipio nagusiak

- Legazpiko etorkizuna **ezageran** errotutako garapenean oinarrituta eraikitzea.
- Garapen hori herriaren **identitatean** eta **berezko balioetan** oinarritzea.
- **Ikuspegi sistemikoa eta diziplinartekoa bilatzea**, hirigintzan, industrian, kulturaren etab. egingo den jarduketari koherentzia emateko.
- Jarduketa hiru funts izango dituen **iraunkortasunean** oinarritzea: ekonomikoa, soziala eta ingurumenarekin lotutakoa.
- Herritarren **parte-hartzea** bilatzea, ez soilik diagnosiaren fasean, baizik eta ekimen berriak bultzatzeko orduan ere bai.

¹ Lenbur ("Legazpi Natura eta Burdina")

² 1992, Río de Janeiro - Ingurumenari eta Garapenari buruzko Goi Bileran; Agenda 21 eredu sortu zen. 1994, 'Aalborg-eko Gutuna': ereduaren berrespina Europan.

³ www.mik.es

- Parte-hartzean oinarritutako eskemak udal gobernuaren euskarri iraunkor bihurtzeko ahalegina egitea.

Oinarri teorikoak eta kontzeptualak: Ezagueraren Hiriak eta Ezagueran Oinarritutako Garapena

- Proiektuaren espirtua eta ikuspegia ulertzeko, proiektuak tokiko nahiz eskualdeko garapenaren arazoa ikuspegi desberdin batetik landuko duela azpimarratzea garrantzitsua da; ikuspegi hori indarra hartzen ari diren teoretan oinarritzen da, “**Ezagueraren Hiriak**” (“Knowledge Cities” ingelesezko adierazpenetik hartua) eta “**Ezagueran Oinarritutako Garapena**” (Knowledge Based Development) deritzen teoretan hain zuzen ere.
- Izenburu horren atzean hainbat teoria eta egile biltzen dira, 90eko hamarkadaren bukaeratik eta hamarkada honen hasieratik *garapen eta berrikuntza motor gisa hiriek eta eskualdeek protagonismo eta gaitasun handiagoa izatea* eskatzen dutenak, horiek osatzen dituzten eta balioa eman diezaieketen elementu guztien balantze orekatuan (balio ekonomikoaren eta sozialaren arteko balantzea) oinarrituta; balioak hauek lirateke: identitatea, kultura, diseinua, jarduera ekonomikoa, hirigintza, balioak...; ildo horretatik, **tokiko garapenaren atzean legokeen filosofia ez litzateke “gehiago edukitzea, baizik eta gehiago IZATEA”**.
- Ikuspegi teoriko hori modu esperimentalean –eta aitzindarian– praktikara eraman nahi izan da proiektu honetan, eta **Legazpi Bai!** izena eman zaio proiektuari.
- Horregatik, garrantzitsua da azpimarratzea proiektu honen helburua (eta emaitza) **EZ dela tokiko garapenerako Plan Estrategiko** arrunta eskaintzea, baizik eta *Legazpiko eta Legazpirako berariazko garapen integralerako eredu bat*, herriak berezkoak dituen elementuetan eta gaitasunetan oinarritutakoa.

Ikuspegiaren arteko aldeak: hirien ohiko plangintza estrategikoa vs. ezagueran oinarritutako garapena

Plan Estrategikoa	Ezagueran oinarritutako garapena
<ul style="list-style-type: none"> • Ahaleginen % 70 informazioaren bilaketan eta trataeran oinarritzen da • Informazio horren zatirik handiena kanpoko informazioa da (‘beste toki batzuetako onena’) • Alderdi sendoenak, ahulenak, mehatxuak eta aukerak aztertzen ditu • Azterketa estandarra izaten da, estrapolatu egin daiteke • Paperean hainbat esparrutan egiteko jarduera ugari proposatzen ditu • Ekintza gogoetatik bereizita dago • Hiria izan daitekeenaren “desideratum” edo amets bat bihurtzeko. Ez dago erlazionatuta garapenaz arduratuko diren eragileekin ez eta testuinguru kulturalarekin eta ekonomikoarekin • Udalbatzaren kudeaketa-eremu guztietan banatzen eta hedatzen ditu ekintzak • Askotan plana agintzen duen udalaren jarduera plan bihurtzen da, eta gobernu talde berri bat sartzen denean, horrek antzeko beste batez ordezten du 	<ul style="list-style-type: none"> • Dagoen informazioan oinarritzen da, eta herritarrek informazio horri buruz egiten duten interpretazioa bilatzen du, historia, identitatea eta emozioak kontuan hartuta • Kanpoko informazioa erabiltzen du, eta batez ere, barneko ezaguera • Hiriaren alderdi sendoetan eta aukeretan nahiz hiriak dituen alderdi berezietan oinarritzen da • Azterketa berezia da, ezin da beste hiri batera estrapolatu • ‘Herritarrek zer izan nahi duten’ aztertzen du • Ekintza gogoetatik hurbil dago • Erlazio sistema holistikoa ezartzen da, garapena eta identitatea konbinatzen dituena, eta alderdi emozionala eta ekonomikoa, norbanakoari dagokiona eta arrazionala modu integratuan konbinatzen dituena • Herritarrei ekintzak garatzeko bideak adierazten dizkie • Ezagueran oinarritutako garapena herritarren esku dago, ez udalbatzaren esku, eta beraz, gorabehera eta aldaketa politikoen eremua gaintzen du

Iturria: A. Arbonías (MIK S.Coop)

Proiektuaren ikuspegia


Helburuak

Proiektuaren helburu nagusia *Legazpiko iraganari, orainari eta etorkizunari buruzko gogoeta orokorra egitea da, udalerrriak etorkizunean garatzeko izan ditzakeen aukerak eta lerroak aztertzeko*

Proiektuaren eskema orokorra

Goian zehaztutako helburu nagusia aurrera eraman ahal izateko, proiektua lanerako hainbat ataletan egituratu da; atal horietako bakoitzak eduki eta jarduera bereziak ditu, baina elkarren artean lotura estua dute, eta grafikoan ikus daitekeen moduan, osotasun bat eratzen dute:

Proiektuaren gaikako eskema orokorra: lanerako atalak



Eskema orokorraren deskribapena eta edukia. Orain arte egindako lana

Prestakuntza (0. fasea)

Helburuak


Hau da, funtsean, proiektua prestatzeko eta bultzatzeko hasierako fasea: proiektuaren ikuspegia zehazteko hasierako bilerak, informazioa eta agiriak biltzea...

Egindako lana

Hasierako fase honetan garatu diren jarduera nagusiak bi izan dira:

- I. Informazioaren bilketa eta azterketa
- II. Herritarrez osatutako lan talde baten eraketa

I. Informazioaren bilketa eta azterketa:



Proiektuaren eta lan taldearen dokumentatze lana, Legazpiko historiari eta gaur egungo errealitateari buruzko informazio orokorra ezagutzeko eta jasotzeko.

Horretarako 'bigarren mailako informazioa' aztertu da, hau da, udalerritari buruz dauden **agiriak** (jatorria, historia, ekonomia...), bereziki udal garapenerako ekimen edo ikuspegiaren aurrekariari buruzkoak (aurreko plan estrategikoak, Eusko Jaurlaritzaren ekobarometroa, estatistikak...); horrekin batera, informazio berria ere eskuratu da, Legazpiko bizitzaren ordezkari diren zenbait herritarri, azken hamarkadetan herriak izan duen errealitateari buruzko iritzietan 'lider' lekua bete duten zenbait herritarri, egindako **elkarrizketa pertsonalaren** bitartez.

Aztertutako 'bigarren mailako' informazioari dagozkion agiri batzuk:

- Legazpiko ekobarometroa, 2004
- Agenda 21eko ekintza planaren laburpen taula (2005-2007)
- Legazpiko iraunkortasunerako 2005-2007ko ekintza plana, eztabaidarako zirriborroa, 2005eko martxoa
- Euskarako plan estrategikoa
- Legazpi iraunkortasunerantz, ingurumen diagnosis eta ekintza plana, 2001-2003
- Legazpiko iraunkortasunerako tokiko ekintza plana: i ingurumen diagnosis, eta ii ingurumeneko ekintza plana
- Legazpiko Arau Subsidiarioak, 2004ko abendua
- Agenda 21eko partaidetzari buruzko azterketa, 2005
- Ekonomia suspertzeko proposamena, IBK 1994
- Urola-Garaia eskualdeko plan estrategikoa, LKS 1994
- ...etab.

Egindako elkarrizketa pertsonalen xehetasunak:

- Hainbat esparrutan jardun duten Legazpiko herritarren lagina aukeratzeko saiatu gara: irakaskuntzaren esparrukoak, enpresaren esparrukoak, gazteak, elkarteak (kultur elkarteak, kirol elkarteak, gizarteko elkarteak, auzo elkarteak...), udala, Legazpiko herriaren alde egindako lanagatik nabarmendutako pertsonak, diasporakoak...
- Aurrez zehaztutako galdetegiaren arabera egituratu dira elkarrizketak.
- Guztira, 21 elkarrizketa egin dira.

II. Herritarrez osatutako lan talde baten eraketa:


Lanaren hurrengo etapan Legazpiko baliozko elementu bereziei ('Kapitalen Sistema) buruzko gogoeta egin behar zenez, modu irekian eta Legazpiko herritarren partaidetza bultzatuz, lanerako **lan talde pilotu** bat sortu da, hainbat esparrutan jarduten duten herritarrez osatutakoa (talde honetako kideetako batzuk goiko elkarrizketetan aipatutakoak dira, beste batzuk, aldiz, ez).

Lan talde hau **boluntarioz** osatuta dago, eta hasiera batean proiektuaren helburuen berri emateko aurkezpen hitzaldi orokor baten bitartez jaso dute prestakuntza, eta gero MIKek zuzendutako programa berezi batean parte hartzeko gonbita egin zaie, herriko azken garaiko historia sozio-ekonomikoari eta gaur egungo eta etorkizuneko errealitateari buruz gogoeta egiteko bileretan parte hartzeko gonbitea hain zuzen ere; bilera horiek izan dira 'Kapitalen Sistema' deritzon lan honen bigarren etaparen muina; ondoren zehaztu dugu.

Kapitalen Sistema (1. fasea)

Helburuak

Hasierako lan atal nagusia da honakoa, eta 'kapitalen sistemari' buruz egindako hausnarketaren inguruan ardatzen da, ikuspegi kontzeptualetik eta metodologikotik, garapenaren zentzua eta diskurtsoa, oinarritzat proiektuaren ikuspegi osoa gidatu nahi duen Ezagueraren Gizartea hartuta.



Beraz, fase honen helburu nagusia, *Legazpik dituen balioen eta gaitasunen inguruan, partaidetzan oinarritutako eta guztion artean adostutako gogoeta prozesua egitea da, eta balio eta gaitasun horiek izango lirateke kapitalen sistemaren oinarriak.*


Metodologiari buruzko ohar orokorra:

Kapitalen Sistemaren© metodologia Francisco Javier Carrillo doktoreak eta bere taldeak Ezagueraren Sistemen Zentroan (CSC) garatutako metodologia da, Monterreyko Zentro Teknologikoan, Mexikon⁴. Hau dela eta MIK S.Coop-ek Monterreyko Zentro Teknologikoarekin kolaborazio eta transferentzi konbenio bat mantentzen du.

- Kapitalen Sistemak hiri edo eskualde baten bizitza eta garapen aukerak osatzen dituzten elementuen arteko **sistema orekatua** islatu nahi du.
- Sistema honek hiri edo eskualde bateko **baliozko elementu guztiak** barne hartu nahi ditu, ez soilik alderdi ekonomikotik eta azpiegituren alderditik (hirigintza, etxebizitza, jarduera ekonomikoa, enplegua...) begiratuta, baizik eta hiri baten energia eta bizitza maila zehazten duten eta horren nabarmenak ez diren beste elementuetatik ere bai (kultura, identitatea, giza kapitala, bizi kalitatea, gizarte batasuna, sustraiak...), ukiezinak diren elementuetatik, alegia.
- Zentzu horretan, kapitala **bitartekoa eta helburua** da aldi berean, udalerrriak berritzeko eta bilakatzeko dituen elementu eta gaitasun bereziak baitira horiek, eta horien gain finkatu eta bermatu behar baita berorren garapena.

⁴ Informazio gehiago: www.sistemasdelconocimiento.org

Ikuspegi kontzeptual eta metodologikotik, erreferentzia kapitalen sistemak ondoko eskema du gure lanean:



Iturria: F.J.Carrillo (CSC)

Kapital nagusien kontzeptuen azalpena:

Identitate Kapitala	<p>Hiriaren edo eskualdearen identitatea da bere izatearen gune den ardatz ukiezina, eta etorkizuneko joera zehazten du.</p> <p>Identitatea historiak eta iraganeko oinordetzak markatzen du, baina baita orainak ere, eta etorkizunerako nahi duguna zehazteke gelditzen da hein batean; horregatik, honako hauei buruz hitz egiten dugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Oinordetzan jasotako identitatea: hiriko historian metatutako elementu formalak eta informalak, bere identitatea zehaztu zutenak. Beraz, <i>udalerrriaren historiak, tradizioak...</i> hitz egiten dugu. • Indarrean dagoen identitatea (oraina): gaur egungo identitatea zehazten laguntzen duten elementu formalak eta informalak. Beraz, kasu honetan <i>biztanleriaren identitateaz eta errotze zentzuaz ari gara, hiriak dituen elementu bereizgarriak bilatzeaz, kanpoan jasotzen duten itxuraz, faktore erakargarriez (norbanakoez, familiek eta/edo enpresek nahiz erakundeek hirian ezartzeko erabakian eragina izan dezaketen faktoreak)...</i> • Etorkizunari dagokion identitatea: etorkizuneko ikuspegia osatuko duten
----------------------------	---

	<p>elementu formalak eta informalak.</p> <p><i>Hiriaren etorkizuneko ikuspegiak ari gara (10-15 urte barru): zer nahi dugu gure hiria izatea? Zergatik nahi dugu Legazpi kanpoan ezagutzea?...</i></p>
Adimen Kapitala	<p>Hiri batek (erakunde bizia den heinean) bere garapenean eragina izan dezaketen inguruko `seinale´ garrantzitsuak jasotzeko, eta seinale horiei zentzua emateko nahiz horien aurrean erantzuteko duen gaitasunari egiten dio erreferentzia.</p> <p>`Seinale´ horiek zentzu zabalean ulertu behar dira, eta edozein motakoak izan daitezke: lege araudiaren aldaketak, herritarren bizimoduaren aldaketak, gizarte talde berrien sorrera, aldaketa ekonomikoak, berrikuntza teknologikoak, garraioan gertatutako berrikuntzak...</p>
<p>Oharra: metodoaren ikuspegitik, Identitate Kapitala eta Adimen Kapitala <i>Erreferentzia Kapitalaren</i> barnean bil daitezke, azken horrek gainerako kapital guztien identifikazioa eta lerrokatzea ahalbidetzen duten baliozko elementuak ordezkatzen baititu.</p>	
Erlazio Kapitala	<p>Sisteman dagoen erlazio sarea barne hartzen du: hiri barneko eragile garrantzitsuen arteko nahiz hiriko eragileen eta kanpokoen arteko <i>elkarreraginaren maila eta kalitatea</i>.</p> <p>Beraz, hiriak <i>loturak ezartzeko duen gaitasunari</i> buruz ari gara, ez zentzu fisikoan (komunikazio sarea etab.), baizik eta zentzu abstraktuagoan (gizarteko eragileen arteko harremanak, kanpoko loturak...).</p> <p>Beraz, barneko erlazio kapitala eta kanpoko bereiziko ditugu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Barnekoa: udalerrriaren barneko eragileen (erakundeak, enpresaburuak, elkarteak, dendak, herritarrak...) arteko erlazioaren eta elkarreraginaren maila eta kalitatea. • Kanpoko: udalerritik kanpoko eragile esanguratsuekiko erlazioaren eta elkarreraginaren maila eta kalitatea.
Finantza Kapitala	<p>Ikuspegi ekonomikotik, hiriaren edo eskualdearen dimentsioak eta balioa sortzeko dituen gaitasunak biltzen ditu termino honek, hau da, hiriko edo eskualdeko produkzio sistema edo ekonomia.</p> <p>Beraz, adierazle makroekonomiko orokorrak hemen txertatzen dira, beste arlo batzuekin konparatzeko erreferentzia direnak, baina bestalde, udalerriko kontu eta aurrekontu publikoei buruzko informazio gardena, etab.</p>
<p>Oharra: metodoaren ikuspegitik, Erlazio Kapitala eta Finantza Kapitala <i>Artikulazio Kapitalaren</i> barnean bil daitezke, sistemako gainerako kapitalen arteko erlazioa eta balio trukea edo sorrera ahalbidetzen baitu horrek.</p>	
Giza kapitala	<p>Hirian edo eskualdean bizi diren, lan egiten duten eta, azken batean, elkarrengan eragina duten pertsonak (herritarrak) dira. Giza kapitalak, pertsonak gizarteko eragile indibidual edo kolektibo diren heinean, balio sozio-ekonomikoa sortzeko duten gaitasunari egiten dio erreferentzia.</p> <p>Giza kapitala osatzen duten hainbat alderdi hartu behar dira kontuan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Osaera `organikoarekin´ lotutako alderdiak: <i>egitura demografikoa, aniztasun etnikoa, immigrazioa...</i> • Alderdi intelektualak: <ul style="list-style-type: none"> - <i>Kultur ondarea: hizkuntzak, erlijioak, artea, artisautza, ohiturak, kirolak, gastronomia, jatorrizko izendapenak...</i> - <i>Gaitasunak eta eskumenak: prestakuntza eta hezkuntza mailak, gaitasun profesionalak, gaitasun ebolutiboak (tolerantzia, kultur aniztasuna, kultura zibikoa, herritarren parte-hartzea, ekintzak garatzeko</i>

	<i>gaitasuna...), etab.</i>
Baliabide Kapitala	<p>Gainerako kapitalek balioa sortzeko duten gaitasunaren euskarri diren sistemako azpiegiturak eta produkzio baliabideak dira.</p> <p>Baliabide Kapitalak hainbat alderdi barne hartzen ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • <i>Lurraldeko edo hiriko geografia: barnekoa/kostaldekkoa, orografia, hidrografia, klima, inguruko paisaia, ingurumena...</i> • <i>Azpiegiturak:</i> <ul style="list-style-type: none"> - <i>Kultur ondare materiala (aztarnak eta ondare historikoa...)</i> - <i>Azpiegitura zibila eta hirigintza (hiriaren egituraketa, etxebizitza, lotura eta garraio sarea...)</i> - <i>Produkzio azpiegitura: industria eta enpresa sarea, dendak, zerbitzuak</i>
<p>Oharra: ikuspegi metodologikotik, Giza Kapitala eta Baliabide Kapitala Produkzio Kapitalaren barnean biltzen dira.</p>	

Egindako lana

Fase honetan, jarduera nagusia lehen aipatutako lan taldeak Legazpiko 'kapitalen sistema' bereziaren inguruan egindako gogoeta eta elkarrizketa prozesua izan da, MIKen gidaritzapean.

Horrez gain, hainbat bilera berezi ere egin dira; inguruko enpresaburuekin bat eta diasporako legazpiarrekin, beste puntu geografiko batzuetan bizi eta lan egiten dutenekin, beste bat; bilera horien helburua ekimenaren ildo nagusien berri ematea izan da, haien pertzepzioak eta iritziak jasotzeko. Oso zaila da bi talde horiek lan talde nagusi eta egonkor batean biltzea.

I. Lan talde nagusiaren bilerak:

- Lan talde hau aurrez zehaztutako egutegiaren arabera bildu da, eta bilera horietan goian deskribatutako kapitalen sistema osatzen duten elementuak (identitatea, giza kapitala, azpiegiturak...) aztertu ditu, horietako bakoitzean sakonduz.
- Bilera guztietan lan eskema berbera erabili dute:
 - MIKek ikuspegi metodologikotik bileran landu beharreko gaien aurkezpena egin.
 - Lana eta eztabaida talde txikietan egin, txandakako sistemaren bidez.
 - Azken eztabaida eta talde osoaren ondorio orokorrak.
- Azpimarratu beharra dago taldearekin egindako lan prozesuak ez duela taldekideak hainbat alderdi teknikotan prestatzea bilatzen, ez eta aurrez zehaztutako mezuak edo ideiak adieraztea; bilera bakoitzaren prozesua udalerriko gai eta alderdi berezien inguruan eta guztion parte-hartzean eta adostasunean oinarrituta egindako elkarrizketan datza.
- Ildo horretatik, taldeko kideek, herritar diren heinean, planteatzen diren gaien buruz beren iritziak eta pertzepzioak (subjektiboak) adieraztea nahi da, hau da, ez da beharrezkoa gai bakoitzari buruzko aurretiazko prestakuntza jasotzea edo berariazko eskumenak izatea.
- Elkarrizketa prozesu honetan, zenbait gaitan informazio eta datu objektiboagoak ere eskaini dira (esate baterako, estatistika demografikoak, zifra ekonomikoak...), hala, elkarrizketa aberasteko eta oinarri bat izateko.



- Saioak, 10 guztira, astero edo hamabostean behin egin dira, 2005eko urritik abendura bitartean. Saio bakoitzak 2-3 ordu iraun du gutxi gorabehera, eta guztiak ostegunetan izan dira (17:00-20:00).
- Legazpiko Udaleko instalazioetan (osoko bilkuren aretoa) egin dira bilerak, eta berorietan Legazpiko alkateak eta Udaleko hainbat zinegotzik eta teknikariek ere hartu dute parte, lan taldeko gainerako kideen maila eta baldintza berberetan beti ere.
- Taldea hainbat esparrutako pertsonak osatu dute (merkataritzak, erretiratuak, herriko elkarteetako ordezkariak, enpresako jendea...).
- Hasiera batean taldean 20-25 pertsona bildu baziren ere, azkenean 10-15 pertsonako talde finkoa osatu da, kide batzuek bileretan parte-hartzeari utzi egin baitiote, hainbat arrazoiengatik.

II. Legazpi inguruko enpresaburuekin egindako bilera berezia

Goiko puntuan aztertutako lan talde nagusi eta egonkorrean (bilera egutegi zehatza zuena) Legazpiko enpresa nagusietako enpresaburuek eta zuzendariak parte hartzea ezinezkoa izan denez, beroriei zuzendutako bilera berezi bat egin da.

- Bilera horretan, martxan jarritako ekimena eta proiektuaren ideia azaldu zitzaizen modu orokorrean, eta lan prozesuaren barnean identifikatuko ziren aukera eta ekintza zehatzetan euren babesa eta partaidetza boluntarioa espero zela adierazi genien, udalbatzaren eta Legazpiko enpresa elkartearen artean komunikazio foro egonkorra sortzeko asmoarekin.
- Legazpiko Udalak egin zien bilera deia eta bertan parte hartzeko gonbita, eta erantzuna oso ona izan zen; 2005eko abenduaren 22an egin zen bileran nazio nahiz nazioarteko merkatuan parte hartzen duten herriko 15 enpresa enblematikok hartu zuten parte.

III. Legazpiko diasporarekin egindako bilera berezia

Hainbat arrazoiengatik, aspalditik estatuko nahiz nazioarteko beste puntu batzuetan bizi diren eta lan egiten duten legazpiarrek `kanpotik` izan dezaketen iritziaren eta ikuspegiaren berri izateko, horiei bereziki zuzendutako deialdia egitea balioetsi eta erabaki zen.

- Horretarako, Legazpiko Udalak ekimenaren jakinarazpen orokorra egin zuen, eta 2005eko abenduaren 30erako bilera deialdi berezia, kanpoan bizi direnetako asko Gabonak senideen artean igarotzeko herrira itzultzen direla aprobetxatuz.
- Enpresaburuekin egindako bilera berezian bezala, kasu honetan ere parte-hartzea handia izan zen.

Emaitzak

Goian adierazitako eta bi fase hauetan egindako lanak emaitza izan du eta **atariko diagnostia** prestatu da; lan taldeak egindako bileretan ateratako ondorio nagusiak laburtu dira bertan, eta aztertutako agiriak ere jaso dira.

Diagnosi horretan eta fase hauetako bestelako input guztietan (aztertutako informazioa, enprekin izandako elkarriketak, diaspora, instituzioak...) nahiz gero MIKek egindako barne lanean oinarrituta, **Legazpiko etorkizuneko garapenerako eredu proposamena** prestatu da baita ere; bertan lan ardatz nagusiak jaso dira, eta ardatz horiek bultzatuko eta kudeatuko dituzten erakundeak.

Ondoren agiri horiek dituzue:

Atariko diagnostia

Lan taldeak bileretan egindako gogoetatik sortu ziren ondorio eta ideia nagusiak laburtu ditugu ondoren, eta bestelako elkarrizketak eta bilerak ere jaso ditugu; bestalde, proiektuaren hasierako fase hauetan aztertutako informazioa ere bildu dugu.

Ondorioak modu eskematikoan aurkeztu ditugu, horien atzean dauden gogoetetan eta inplikazioetan sakondu gabe; kapitalen sistemaren eskemari jarraitu diogu, saioetan erabilitako jarraibide metodologikoan oinarrituta.

<p>Identitate Kapitala</p>	<p>Oinordetzan jasotako identitatea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Industri kultura sendoa (vs. nekazaritzako jarduera), burdinaren lanari berariaz lotutakoa gainera. • Herriaren garapena eta hazkundera Patricio Etxeberria enpresarekin lotuta, garapen ekonomikoa, demografikoa, soziala eta hirigintza esparrukoa bultzatu baitzuen. • Herriaren garapena enpresa jakin bati horren lotuta egotearen alderdi ez hain positiboan edo gerora ikusi diren ondorioen artean, honako hauek azpimarratu behar dira: <ul style="list-style-type: none"> ○ Gehiegizko mendetasuna, oro har, eta babes/paternalismoa. ○ Biztanleriaren `erosotasuna`; ekintzak garatzeko kultura ez sustatzea. ○ Jarduera ekonomikoa `monoindustrian` gehiegi oinarritutakoa. • Iraganean immigrazio prozesu indartsua (enpresaren hazkunderarekin lotutakoa) • Enpresaren barneko hierarkia herriko bizimoduan islatzen zen, eta urte askotan iraun du hierarkia horrek. • Historikoki, Legazpiko gizartearen inplikazio maila eta elkarteak sortzeko joera handia izan da (kulturan, kiroletan...) • Elkarrekin sortzeko joera horrek herriaren garapena bultzatu du hainbat unetan eta esparrutan. Adibidez: <ul style="list-style-type: none"> ○ Hezkuntza: guraso elkarrekin sorrera. ○ Etxebizitza: Itxaropenen etxebizitzak eraikitze ko-operatibaren sorrera. • Belaunaldi baten galera: bere garaian garapen profesional handiagoa eskuratzeko alde egin behar izan zuten pertsonak. • Garai hartan, Legazpiko hazkundera, batez ere lehen adierazitako immigrazio prozesu indartsuaren ondorioz, oso hazkundera `azkarra` izan zen, eta horregatik ez zuen bertako identitatea eskuratzeko eta errotzea lortu, eta alderdi horiek guztiak herriaren oraingo identitatean eta egoeran ikus daitezke.
	<p>Indarrean dagoen identitatea</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Oro har, identitatea eta errotzea erdi edo behe mailakoa da. • Badago nolabaiteko identitate zentzua, baina ezin da beste herri batzuetakoarekin konparatu (Oñatikoarekin adibidez); ez dago legazpiar sentimenduaren `harrotasuna`. • Lehen esan dugun moduan, iraganean immigrazio prozesu indartsua gertatu zen Legazpin, eta oso epe laburrean gainera; horren ondorioz, Legazpi `herri gaztea` da gaur egun, errotze edo identitate zentzu handirik gabea. • Bertakoak herrian gelditzeko joera handiagoa da, baina Legazpitik lehen aldiz unibertsitatara joateko irteten den biztanleria gaztea galtzen ari da herria (Bilbora, Donostiara etab. joaten dira), eta gero oso zaila izaten

	<p>da itzultzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Horrez gain, lehen esandakoa gogoratzuz, iraganean ere adin tarte jakin batzuetako biztanleek herritik alde egin zuten; hala, bada, legazpiarren diaspora garrantzitsua dago gaur egun 35 urtetik gora. • Hasierako diaspora horri jende gazteagoz (18-35 urte gutxi gorabehera) osatutako bigarren diaspora bat batu zaio orain. • Hirigintzari dagokionez, une honetan nagusi den zatiketa fisikoa, ondo bereizitako bi hirigune dituena, P. Etxeberria enpresaren hazkundearen garaitik jasotakoa da. • Zatiketa fisiko hori zatiketa soziala ere izan zen garai batean, baina gaur egun jada bigarren zatiketa mota hori desagertu egin da, Legazpin hirigintza mailan garatutako ekintzen ondorioz hein handian. • Legazpiren irudiaren alderdi bereziei dagokienez, barneko pertzepzioak eta irudiak (herritarrek dutena) ezaugarri hauek ditu: bizi kalitatea handia da, lasaitasuna, segurtasuna, natur ingurunea...; alderdi horiek guztiak azpimarratzen eta balioesten dituzte gaur egun Legazpiko biztanleek. • Herriari buruz jendeak kanpoan izan dezakeen irudiari dagokionez, Legazpi bertan kokatuta dauden enpresengatik (Bellota, Cie...) enpresa munduarekin lotutako foroetan ezagutu daitekeela pentsatzen da, enpresa horietako batzuek presentzia handia baitute bai nazio eta bai nazioarte mailan, baina ez beste alderdi batzuegatik; badirudi, beraz, udalerrria kanpoan proiektatzeko aukera bat badagoela hor. • Oro har, Legazpi kanpoan gutxi edo oso gutxi ezagutzen dela ondoriozta daiteke, baina gabezia hori apur bat hobetzen ari da (esate baterako Lenbur proiektuarekin). • Aurreko puntuekin lotuta, Legazpi barrura begira (herritarrek) nahiz kanpora begira izan ditzakeen faktore erakargarriak buruz gogoeta egin da; faktore horiek honela definitu dira, beraz: <i>norbanakoek, familiek, enpresek, etab. herrian gelditzeko eta/edo finkatzeko erabakia hartzeko lagungarriak izan daitezkeen udalerriko alderdiak.</i> • <i>‘Bertan bizitzeko’</i> faktoretzat honako hauek har daitezke: <ul style="list-style-type: none"> • Bizi kostua (hiriburuetakoa baino txikiagoa den bitartean) faktore erakargarri bat izan daiteke. • Osasun publikoan eta zerbitzu medikoetan eskaintzen diren zerbitzuen maila. • Bizi kalitatea eta lasaitasuna. • Natur ingurua, aurreko puntuarekin lotuta. • Herritarren segurtasuna. • Hala ere, bertako ekonomiarekin eta enpleguarekin lotutako alderdiak ez dira erakargarriak, ez eta klima, garraio publikoaren azpiegitura, aisialdi eta kultura eskaintza... • Legazpin <i>‘ikasteko’</i> faktore erakargarriak: <ul style="list-style-type: none"> • Bertako ikastetxeen kalitatea, batik-bat. • Hasiera batean behintzat Legazpi ez du indar handirik esparru honetan. Araututako hezkuntza zerbitzuaren maila ona den arren, adin jakin baterainoko zerbitzua baino ez du eskaintzen, eta goi mailako heziketarako kanpora joan behar dute gazteek. • Ildo horretatik, Mondragón Unibertsitatea (MU) nahiko hurbil dagoela azpimarratu behar da, <i>Arrasaten, Oñatin eta Ordizian</i> fakultateak baitaude. • Legazpin <i>‘profesionalki garatzeko’</i> faktoreak:
--	--

		<ul style="list-style-type: none"> • Hau da, a priori, esparrurik ahulena (enplegu aukerak, aukera profesionalak, lan egiteko enpresa onak, soldaten batez besteko maila, gizarte maila kreatiboen eta profesionalen immigrazioa...) • `Aisialdirako eta turismorako´ faktore erakargarriak Legazpin (batez ere Lenburren esperientzian oinarrituta): <ul style="list-style-type: none"> • Natur ingurune pribilegiatua (bertan gehiegi balioesten ez dena). • Azpiegiturak (eta berriak edo hobe daitezkeenak). • Jardueren eskaintza eta katalogoa. • Eskualdeko nahiz nazioko turismoa. • Presentzia aisialdian eta turismoan espezializatutako esparruetan. • Hala ere, gabeziei dagokienez, sektore honetan enpresa edo erakunde gutxi daudela ikusten da; nazioarteko turismoa ere nahiko `ahula´ da oraindik. • Legazpi `negozio gune´ izateko faktoreak: <ul style="list-style-type: none"> • Industri lurzoruaren eskuragarritasuna. • Une honetan ez dira faktore erakargarritzat jotzen negozioen immigrazioa, zuzeneko inbertsio maila (kanpoko), negozio berriak sortzeko tasa... • Beraz, garapen profesionala da alderdirik negatiboena. • Natur ingurune + aisialdi/turismo esparruan, beraz, honako alderdi hauetan eta bai <i>partikularren</i> bai <i>enpresen/erakundeen</i> mailan aprobeitza daitekeen potentziala dago. <ul style="list-style-type: none"> • Legazpiren irudia. • Ekonomia eta enplegua: merkatu-zoko berrien aukera. • Herritarren parte-hartzeari / asoziazionismoari dagokienez: badirudi asoziazionismoak, beste garai batean horren erabakigarria izan zenak, nolabaiteko geldialdia duela orain; <i>elkarte asko daude, baina parte-hartzea oso txikia da</i>. • Legazpin, gutxi gorabehera 70 elkarte aktibo daudela kalkulatu da. Eusko Jaurlaritzaren 2004ko Ekobarometroaren arabera, Legazpin asoziazionismoaren batez besteko maila % 7koa da (EAEn % 6koa da) • Legazpiko gazteen kasuan, ez dakigu zer pentsatzen duten, zerk arduratzen dituen, zein izan daitekeen herriko gaur egungo errealitatearen pertzepzioa... • Ildo horretatik, 15-35 urte arteko (gutxi gorabehera) biztanleriari dagokionez nolabaiteko hutsunea dagoela esan daiteke, ez dakigu `zertan ari diren´, ez eta gazteengana iristeko eta haiekin komunikatzeko bide egokienak zein diren. • Ziurrenik, gazte jendearen `soziazionismo alternatibo´ bat badago, gauzak egiten ari dena, baina ez da ezagutzen.
	Etorkizuneko identitatea	<ul style="list-style-type: none"> • A priori, konplexua da udalerrriak epe luzera begira (10-20 urte) izan dezakeen ikuspegiari buruz pentsatzea. • Bizi kalitatearekin, lasaitasunarekin, segurtasunarekin, natur inguruarekin eta abarrekin lotutako alderdi positiboak ikusten dira. • Baina jarduera ekonomikoarekin eta enpleguarekin lotutako alderdiak kezkarriak dira, industria tradizionala globalizazioaren eragina jasaten ari baita, eta balio erantsi txikiko lantegien eta produkzio jardueren deskokatzeta gertatzen ari baita.

<p>Erlazio Kapitala</p>	<p>Barnekoa</p>	<p><i>Kohesio sozio-ekonomikoa eta kulturala</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Udalerriaren barneko gizarte kohesioari dagokionez, gaur egungo kohesio sozio-ekonomikoa goi/erdi mailakoa dela esan daiteke, eta arlo sozio-ekonomikoan ez dago desberdintasun handirik. • Bizikidetzan eta integrazioan ez da hauteman arazo berezirik, batez ere egungo belaunaldietan (arlo horretan, etorkinen lehen belaunaldiarekin alderatuta asko hobeto da kontua). • Legazpi bizileku eta lantoki modura betetzen duen tokiarekin gustura daude herritarrak (>%92) (Iturria: EJren Ekobarometroa, 2004). • Legazpin elkarteetan biltzeko ohitura eta kultura handia dago, nahiz eta helburu komunak lortu ahal izateko elkarrekin aritzeko ohitura handirik ez egon. • Gaur egun aisialdiko eremu komun bat baldin badago ere, biztanleen sektore bakoitzerako ondo bereizitako aisialdi guneak daude. • Langabezia tasa txikia da (% 5,7koa 2003an, 224 lagun; Gipuzkoako eta Euskal Herriko tasen azpitik dago hori). • Hala ere, emakumeen artean langabezia tasa pixka bat handiagoa da (2003an, emakumeena % 10,2koa zen, eta gizonezkoena, % 3,2); dena den, hauek taldeetan duten parte hartzea handitzen ari da. <p><i>Produktzio kohesioa:</i> ekonomia jardueraren ikuspegitik</p> <ul style="list-style-type: none"> • Enpresa mailan, bateratuta egiten diren ekimenak eta planak oso gutxi dira. Badirudi bakoitzak bere aldetik egiten duela borroka. <p><i>Kohesio politikoa</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Erabakiak hartzerakoan oro har adostasun maila nahiko handia da. • Ikuspegi politikotik, Legazpi beti herri lasaia izan dela esan daiteke • Kulturaren eta gizarte zerbitzuetan herritarren parte hartzea handia da.
	<p>Kanpoko</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Oro har, gaur egun Legazpin kanpo harremanen sarea nahiko ahula dela ondorioztatuta da. • Gaur egungo gizarte loturak ezartzeko gaitasuna funtsezkoa dela aintzat hartuta, egiteko asko dago oraindik arlo horretan: <ul style="list-style-type: none"> • Udalerriaren irudiar dagokionez: batez ere kanpora zabaltzea. • Erlazioen sarea: erakundeen artean nahiz partikular eta pribatuen artea. • Badirudi behar-beharrezkoa dela Legazpi (eta dituen aukerak) kanpoan ezagutaraztea, arlo guztietan. • Ildo horretatik, Lenburren bidez sendo jo da aurrera, baina ezinbestekoa da udalerriko beste alderdi batzuk ere ezagutaraztea.
<p>Finantza Kapitala</p>		<p>Saio horretan, udal aurrekontuak eta diru sarreren eta gastuen sail nagusien azterketa zehatza azaldu da (Udal ikuskatzailearen bidez).</p> <ul style="list-style-type: none"> • Udalaren aurrekontua (2006) 9,5M€koa da (Udalekoa batik bat, baina baita Kirol Patronatukoa, Euskaltegikoa eta Herrigintzakoa ere).


Giza
Kapitala

Aniztasun etnikoa


- **Aniztasun etnikoa txikia** da. Biztanleen % 50 bere garaian beste autonomia erkidego batzuetatik etorritakoa bazen ere, gaur egun bigarren belaunaldia osatzen du, eta erabat integratuta dago.
- Beste herrialde batzuei lotutako **immigrazioa** nahiko txikia da oraindik, baina oso kontuan hartu beharko da etorkizunerako.

Egitura demografikoa

Evolución de la población de Legazpi



Pirámide de Población de Legazpi



- Azken 15 urteetan, **biztanleen kopuruak behera** egin du nabarmen
- 1990ean **10.055** bizilagun zituen Legazpi; gaur egun, 2005ean, **8.651** bizilagun ditu
- Gainera, pixkana-pixkana **biztanleria zahartzen** ari da, **eta biztanleen**

	<p>galera sumatzen da (batez ere gazte jendearena)</p> <ul style="list-style-type: none"> • Demografikoki, horrela dago osatuta Legazpiko gaur egungo biztanleria: <ul style="list-style-type: none"> ○ Biztanleen % 16,4: <20 urte ○ Biztanleen % 21,7: 21 -35 urte (“<i>gazte helduak</i>”) ○ Biztanleen % 37: 36 - 60 urte ○ Biztanleen % 25: >60 urte • Hortaz, 35 urtetik beherakoa da biztanleen % 38, eta 35 urtetik gorakoa, berriz, % 61
--	---

<p>Giza Kapitala</p>	<p><i>Kultur ondarea</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Gazteei ezagupen tekniko eta profesionaletan ez ezik balioen arloan ere prestakuntza ematea garrantzitsua dela ikusi da, balio horiek berreskuratu beharra baitago eta etorkizunerako ere baikorrak eta beharrezkoak izango baitira. • Gaur egun legazpiarren erlijioa katolikoa da (ez praktikatzailea). • Gutxi gorabehera biztanleen % 60k badaki euskaraz, baina, erabilerari dagokionez, ez da % 30 gainditzen. • Kultur arloetan sentiberatasun handiz jokutzen da eta jende asko biltzen dute: <ul style="list-style-type: none"> • Musika, eskultura, artisautza, jaskintza, zeramika, pintura, tailua, etab. <p><i>Familia integratzaileko gaitasunak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Orain arte, familia unitateak garrantzi handia izan du Legazpin, eta halaxe du egun ere. <p><i>Prestakuntza gaitasunak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Prestakuntzaren ikuspegitik, 50 urtetik gora dituztenen prestakuntza maila apur bat apalxeagoa da 50 urte artekoena baino (ehunekotan). • Horretaz gain, eta lehen esan dugunaren ildotik, kapital intelektualaren ihesa ere sumatu da; batez ere unibertsitate ikasketak eta goi mailako prestakuntza dituztenak izan ohi dira, ikastera kanpora joan eta itzultzen ez direnak. <p><i>Produktzio gaitasunak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Negozio berriak sortzeko unean ekimen falta pixka bat nabarmentzen da. • Landun gehienak teknikoak eta profesionalak dira. <p><i>Gaitasun bereziak (urritasunak...)</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Urritasunak dituzten pertsonak eta ezinduak herriko zerbitzu guztietara iristeko modua sustatzeko egun dauden oztopo arkitektonikoak ebazteke daude. • Badirudi 3. adinarekin eta mugitzeko zailtasunak dituzten taldeekin lotutako zerbitzuen sektoreetan zer garatua badagoela, besteak beste, etxez etxeko laguntza... <p><i>Gaitasun ebolutiboak</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Oro har, biztanleek ez dute oso gogoko aldaketan (eta berrikuntzen) alde egitea edo aldaketak onartzea.
-----------------------------	---

	<ul style="list-style-type: none"> • Kultura herritarra nahiko ona da. • Oro har, Legazpi oso herri “lasaia” eta bizitzeko atsegina den sentipena sumatzen da. • Historikoki, Legazpin herritarren parte hartzea nabarmena izan da, nahiz eta gaur egun apur bat jaitsi den.
--	---

<p>Baliabide Kapitala</p>	<p><i>Geografia eta ingurumena</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Natur ingurune pribilegiatu batean dago kokatuta (Aitzkorriko natur parkearen magalean), eta horrek nekazaritza turismoa maite dutenak, mendizaleak... erakar ditzake. • Paisaia inguruneak balio handia du. • Natur parkean sartzeko eta berau ustiatzeko legezko egoera. • Klimatologia: kostaldean baino 4-5°C gutxiago. • Itsas mailatik zertxobait gorago: uraren eta airearen kalitatea ona da; iturburu naturalak daude. • Lasaitasuna, nor bere baitara bildurik edo bakarrik egoteko aukera... • Muga orografikoa. • Bertako landare eta animaliak. • Artzaintzarako toki paregabea; bada Legazpin bertako gazta mota bat, Idiazabal izendapenaren barnean. • Urola ibaia nahiko garbi doa: badirudi enpresak kontzientziatu direla, baina herritarrak gehixeago sentsibilizatu beharra dago. • Herriaren arteria den neurrian, ibai ertzak eta inguruak edertzeko aukera. <p><i>Azpiegiturak; kultur ondare materiala</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Aztarna eta ondare historiko ugari: tumuluak, meategiak, burdinolak, burdinaren museoa, eraikinak (Bikuña Jauregia, Elorregi, Udanako Labeak, etab). <i>Ondasun horiek balioetsi, berreskuratu eta ezagutzera eman behar dira, eta duten balioa kanpora zabaldu beharra dago.</i> • Ondarea berreskuratzen ari dira, Lenburren bidez. • Merkataritza guneen eta aisialdi guneen arteko banaketa desorekatuta dago apur bat, eta berdegune batzuk ere falta dira. • Faktore erakargarri nabarmen bat Mirandaola da. <p><i>Azpiegitura zibilak: hiri konfigurazioa, hedapena, garraioak eta mugikortasuna, lotune fisikoak, telekomunikazioak ...</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Herriko plaza nagusia nabarmentzen da. • Gaur egungo auzoen banaketak garai batean enpresak zehaztutako ildoak islatzen dituela esan daiteke. • Auzo batzuetan (Itxaropen, adibidez) zenbait azpiegitura falta dira, kableak lurperatzea, argiztatzea... • Brinkola, Mantxola eta San Martin auzoaren atzeko aldea dira gune
----------------------------------	---

	<p>degradatuenak.</p> <ul style="list-style-type: none"> • Argiztapenari dagokionez, auzoetan ez ezik kale nagusian ere falta da; oraingoa tristea da, eta ez du asko laguntzen bertako merkataritza sustatzen. • Hirigunean aisialdirako guneak falta dira. • Batetik bestera mugitzeko autoa errazegi hartzeko ohitura dago. • Gaur egungo garraio publikoaren sistema berregituratzeko aukera dago, horrela, inguru osagarrietarako sarbidea errazteko. • Gas eta zuntz optikoen instalazioak nahiko aurreratuta daude, baina Brinkolan eta Telleriarten (hemen badago gasa) instalatu gabe daude. • Gorozki uren hoditeriak eta eskuko telefonoaren estaldura zuzena da, Telleriarten eta Brinkolan izan ezik, gainerako guztietan. • Kable elektrikoaren instalazioari dagokionez, edozein modutara ezarri gero horrek izan dezakeen eragin estetikoaz hainbat kexa egin dira (adibidez, Euskaltel). • Zenbait auzo "garaitan" edateko uraren presioak arazo batzuk sortu ditu (laster konponduko dira). • Herrirako sarbideak gaizki seinaleztatuta. • Aireportuak eta portuak nahiko hurbil daude. • Herritarren segurtasuna ona. • Tren ordutegia zabaltzeko beharra. <p><i>Produktzio azpiegiturak: industria, merkataritza, zerbitzuak...</i></p> <ul style="list-style-type: none"> • Udal lurren ikuspegitik, ez dago aukera handiegirik; badaude lurrak, baina jabe pribatuenak dira. • Industria egiturari dagokionez, gaur egun ETEak dira nagusi, historikoki gertatu denaren kontra (herritar gehienek lana bi enpresatan oinarritzen zen). • Oro har, historikoki herriko industria egitura sustatu duten enpresa handiak atzera egiten ari dira. Ildo horretatik, <i>une honetako errealitateari dagokionez, herritarren gizarte kontzientzia ez dator bat errealitate horrekin.</i> • 'Erosotasuna' biztanleen artean; arazoa bere kabuz edo erakundearen eta enpresa handien laguntzaz konponduko dela pentsatzen jarraitzen dute. • Globalizazio eta deskokatze fenomenoaren ondorioak: alde batetik, enpresa handien erabakiguneak hasierako kokagunetik kanpora ari dira aldatzen, eta bestetik, balio erantsi txikiko (eta langile kostu handiko) produktio jarduerak beste toki batzuetara eramateko joera orokortzen ari da; batez ere nazioartean kostu baxuagoa duten hirugarren herrialdeetara eramaten dira. • Luzera begira eta heziketaren eta prestakuntzaren bidez ekimenez jokatzeko kultura sustatu behar da, gaur egun gabezia hori nabarmena baita. • Enpresen sarea hobetu egin da ETEekin eta industrialdearekin, baina dibertsifikatze txikia du oraindik (gaur egun ere siderurgiaren inguruan mugitzen da batik bat). • Hala ere, modu proaktiboan jokatuz inguruko enpresak erakartzeko aukerak egon, badaude (adibidez, Uma ingeniarietza). • Badirudi garai bateko eraikin industrialak berreskuratzeko aukerarik era badagoela (adibidez, herri sarreran); hauei <i>itxura berria</i> eman dakieke (<i>diseinua</i>), eta <i>eduki</i> desberdinez horni daitezke (arte, kultura, merkataritza...), Europako beste herri batzuetan egin den bezala (esate
--	---

	<p>baterako, Berlinen, Manchesterren...).</p> <ul style="list-style-type: none"> • Legazpiko merkataritzari dagokionez, beste herri txiki askotan bezala, hemen ere halako geldialdi bat edo antzeranzko joera bat igartzen da. • Arrazoiak asko dira, eta askotarikoak: merkataritza gunen handien presentzia (erosketen zatirik handiena horietan egiten da askotan), kontsumo joeren bilakaera (kostu txikiagoko masako kontsumoa indarra hartzen ari da, kontsumo gunen eta familiako aisialdiko gunen gisa merkataritza gunen handiak ari dira nagusitzen...), erosketen espezializatuak gutxitu egin dira... • Sor ote daiteke herritarren artean herriko merkataritza ere sustatu eta bertan erosketak eginez berau indartzeko kontzientzia? Eskaintzetan, zerbitzuetan... zer aldaketa egin behar lirateke? Merkatarien beraien artean nola sor daiteke espíritu kolektiboa?...guztion arazoa da. • Beste talde eta ekimen batzuekin sinergiak eta konexiok bilatzea egoki izan daitekeela dirudi (Lenburrekin, adibidez). • Kale nagusiko eta auzoetako argiztapena (eskasa eta tristea) ez da hori guztia sustatzeko oso egokia. • Herrian bada bertako elkarte aktibo bat (Ilinti), baina bertako askok gutxi jotzen dute bertara eta parte hartzea ere ez da oso handia (gutxi gorabehera 56 bazkide ditu).
--	---

Etorkizuneko garapenerako **Legazpi Bai!** ereduaren proposamena

Testuingurua

- **Legazpi Bai!** proiektua 2005eko ekainean hasi zen, MCCren MIK S.Koop. ikerketa zentroaren laguntzaz, eta *etorkizunean Legazpi izan ditzakeen aukerak eta garatzeko ildoak aztertzeko, Legazpiren iraganari, orainari eta etorkizunari buruzko gogoeta egitea* zuen helburu; proiektu horren barnean, gogoeta orokorraren lehen fasea amaitu da (2005eko ekainetik 2006ko otsailera), eta Legazpiko **etorkizuneko garapen ardatzen proposamena** egin da. Honen eredu laburtua duzue orain aurkeztu zaizuen hau.
- Garapen ardatz horien identifikazioa Legazpin herri honen identitatearekin lotuta dauden elementuei buruzko **aurretiazko gogoetan oinarritu** da; epe ertain eta luzera, ardatz horietan jarduera baliotsuak sortzea posible dela ikusi da, guztiek batera udalerraren garapen jasagarria gauzatu lagundu baitezakete, bai ekonomian, bai gizartean eta baita ingurumen arloan ere.
- **OHAR orokorra:** proiektuaren puntu honetan, definitutako eredu eta garapen ardatzek Legazpiren etorkizuneko garapenaren nondik norakoen *hasierako zirriborroa* adierazten dute; *posible diren aukeren espazio* bat da, definituz joan beharko diren aukerena; gerora, heltze prozesu baten eta talde lanaren bidez, edukiz hornitu beharko dira.

Etorkizuneko garapenerako **Legazpi Bai!** eredu

Ikuskera

Legazpi Bai! proiektuaren ikuskera nagusia ideia honetan oinarritzen da:

“Ekonomia, gizarte eta ingurumen garapenean Legazpi erreferentziatzeko udalerririk bihurtzea; estatuan eta nazioartean lotura onak dituen, honako hauek bateratuz: bizi kalitatea eta ongizatea, bertako oinarriak eta ondare historikoa, ekonomikoa



**LEGAZPIKO
UDALA**



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Berrikuntzarako eta Jakintza Gizarako Departamentua
Departamento para la Innovación y la Sociedad del Conocimiento




MIK
MANAGER
INNOVATION &
KNOWLEDGE

eta kulturala, eta taldeko identitate eta errotze sentimenduak; horrela, Legazpi bizitzeko, lanerako eta bisitatzeko gune erakargarri bihurtu dadin”

Epe luzera ikuskera hori gauzatu ahal izateko, eredu bat eta garapen ardatz orokorrak definitu dira, eta baita beronen garapenerako erakunde bereziak ere; horrek guztiak osatzen du *etorkizuneko garapenerako Legazpi Bai! eredu* deritzona.



- Eredua **5 ardatz edo lan ildo generiko nagusitan**, eta proiektua **gorde** eta bateratuko duen **erakunde** batean oinarrituko da; erakunde horrek bermatuko du proiektuaren koherentzia eta ikuskera integrala (ikuski ondoko irudia).
- Garapen ardatzak 'lan ildo generikoak' dira, eta berorietan oinarrituta **definitu, multzokatu eta txertatuko dira**, gero, **identifikatzen diren ekimenak, programak eta jarduerak, eta baita bertan parte hartzen duten gizarte eragileak ere** (enpresak, herri administrazioa, erakundeak, herritarrak, elkarteak...).



Balio ardatzen edo lan ildo generikoen deskribapena

- Oro har, lan ildo bakoitzak arlo horren ordezkari izango den **erakunde edo entitate profesional berezi bat izango du gidari** (publikoa/pribatua edo zibila); eta helburu nagusia arlo horretako ahalegin zehatzak sustatzea eta bideratzea izango da, **Legazpi Bai!** proiektuko gainerako lan ildoekin eta ikuskera integralarekin ondo koordinatuz.
Kasu batzuetan jada Legazpin lehendik dauden elkarteak izango dira (adibidez, Lenbur, Ondare Historikoa); beste batzuetan (adibidez, Lanaren Etorbizuna arloan, Gizarte Ongizatean, Natur Ondarean....) beharrezkoa izango da horrelako erakunde bat sortzea.
- Proiektu honen ikuspegiaren ardatz direnez, KCities-eko eta Ezagueran Oinarritutako Eskualde Garapeneko filosofiaren eta oinarrien arabera, **ardatz bat ez da bestea baino garrantzitsuago hartuko edo ez zaio bat beste bati gailenduko; guztien artean osatzen duten multzoa da guztiari zentzua ematen diona, berorien arteko lotune eta harremanen bidez; osotasun bat da, eta udalerraren garapenaren ikuspegi integrala ematen du.**

1. Ekonomia eta Enpresa Jardueraren ardatza

Izateko arrazoia:

Ekonomia eta enpresa jardueren esparruan egingo diren ahalegin guztiak bildu nahi ditu ardatz honek, izan ere, herriko edo eskualdeko garapen modu oro ulertzeko eta gauzatzeko, ezinbestekoa baita euskarri izango duen eta herritarrei lanpostuak eta ongizatea (ekonomikoa) ekarriko dizkien gutxieneko oinarri ekonomiko bat eratzea.

Egin beharreko lana:

Hauxe da helburu nagusia: **udalerriko ekonomia eta enpresa jardura bultzatzea, sustatzea eta erraztea**; maila desberdinetan (bertako industria, ETEak, mikroETEak eta merkataritza) ondorengo hauen bidez bideratuko da:

- Arlo honetako ahaleginak sustatzeko eta bideratzeko **erakunde berezi** bat izendatzea, *Legazpi Bai!* proiektuko gainerako lan ildoekin eta ikuspegi integralarekin koordinatuta.
- Legazpiko **enpresa arloarekin zuzeneko harreman etengabe** eustea (lehendik dauden enpresekin eta aukera berriekin), Udalaren eta lehentxeago adierazitako erakundearen bidez, horrela:
 - Enpresa errealitatea, arlo honen problematika eta dituen beharrak **ezagutzeko**.
 - Aukera berriak, sor daitezkeen sinergiak, erakunde mailan beharrezkoak izan daitezkeen jarduerak, baliabideak, finantziario publikoak eta pribatuak... **identifikatzeko**.
 - Ahal den neurrian, ekonomia jardura sustatuz eta, bereziki, lanpostuei eutsiz eta berriak sortuz udalerriri onurak ekar dakizkiokkeen garapen ekimenak **errazteko eta sustatzeko**.
- Jarraipena egitea eta **beste programa ekonomiko estrategiko** batzuekin bateratzea (publikoak eta pribatuak), adibidez, EJren Zientzia eta Teknologia Planarekin, EJren 2015 Planarekin, MCCren Zientzia eta Teknologia Planarekin etab.

Gainerako ardatzekin dituen loturak:

Ardatz honek gainerako guztiekin garrantzi handiko interakzioa du; izan ere, arlo bakoitzean garatzeko aukera berriak izan daitezkeenez, horietan guztietan jarraipen estua egiteko asmoa baitago, udalerrirako balio ekonomiko esanguratsua izan dezaketen jarduerak ekar ditzaketelako.

2. Ondare Historikoaren ardatza

Izateko arrazoia:

Legazpiren iragan historikoa eta industrialia ez da nolanhikoa; iragan hori burdinari eta burdinaren langintzari oso lotuta egon da, eta hortxe dago; beraz, udalerraren identitate historikoan edo jaso duen ondarean indar handia eta sustrai sendoak dituen elementua da, eta horregatik, herriaren etorkizunerako balio handiko elementu den neurrian, berreskura eta alda daiteke, eta hala egin behar da, gainera.

Egin beharreko lana:

Ardatz honetan, Legazpi **jaso duen identitatearen** ezaugarri modura, ondare hori berreskuratu, zaindu eta sustatu behar da, eta **Lenburren** bidez kanpora begira **jendea erakartzeko faktore** izan behar du.

- Garapen ildo honen zentralizazioa Lenburren bidez egingo da, arlo honen ordezkari den erakunde eta eragile ofizial den neurrian, gainerako lan ildoekin koordinatuz eta *Legazpi Bai!* proiektuko ikuskera integralaren barnean.
- Lan arlo honekin lotutako garapen aukerak bilatzea eta zabaltzea (batez ere, aisialdien, turismoaren eta kulturaren ikuspegitik).

Gainerako ardatzekin dituen loturak:

Ardatz hau gainerakoekin lotuta egongo da, batez ere Natur Ondarearekin eta Ekonomia eta Enpresa Jarduerarekin, suma daitezkeen sinergiak kontuan hartuta (aisian, kulturen eta turismoan); eta baita Lanaren Etorkizunarekin ere, errealitate beraren beste aldea adierazten baitu, Lenburrek "Lan Memoria" izan daitekeena adierazten duenez.

3. Natur Ondarearen ardatza

Izateko arrazoia:

Aizkorri mendiaren magalean dago Legazpi, natur ingurune pribilegiatu batean, eta bai barnean (legazpiarren artean) eta bai kanpoan horretantxe oinarritu daiteke bere erakarmen indarra, neurri batean, etorkizuneko garapenean laguntzeko. Legazpi hasiera-hasieratik daukan aktibo bat da, eta agian orain arte ez zaio duen garrantzia eman eta ez da nahikoa sustatu.

Egin beharreko lana:

Ardatz honen helburu nagusia balio hori berreskuratzea, zaintzea eta indartzea da, Legazpiren **egungo eta etorkizuneko identitate** eta, barrualdera nahiz kanpora begira, udalerrira **erakargarriago bihurtzen faktore** den neurrian, *bizi kalitate eta ongizate* kontzeptuekin lotuta.

- Horretarako, ardatz honetako lana ordezkari eta eragile lanak beteko dituen erakunde berezi baten bidez (zehazteke) zentralizatu behar da, *Legazpi Bai!* proiektuko gainerako lan ildoekin modu koordinatuan eta ikuskera integral baten bidez lan eginez.
- Ingurunea eta natur baliabideak babesteko eta barauk indartu eta zabaltzeko jarduerak sartzen dira honen barnean.
- Lan arlo honekin lotutako garapen aukerak bilatu eta zabalduko dira (bereziki, aisiaren, turismoaren eta kulturaren ikuspegitik); adibidez:
 - Aizkorriko Natur Parkerako sarbidea: turismo ekologikoa garatzeko eta indartzeko aukera.
 - Oñatira hurbiltzea (fisikoki, kulturalki eta ekonomikoki), lankidetzaren proiektu zehatzen bitartez.

Gainerako ardatzekin dituen loturak:

Aurrez adierazi dugun modura, ardatz hau Ondare Historikoarekin eta Ekonomia eta Enpresa Jarduerarekin oso lotuta egongo da, goian azaldu dugunaren ildotik, sor daitezkeen sinergiak (aisialdian, kulturen eta turismoan) aintzat hartuta; eta baita Lanaren Etorkizunarekin ere, arlo horrekin lotutako lan inguru berriak bilatzeko aukera ikusten baita.

4. Gizarte Ongizatearen ardatza

Izateko arrazoia:

Legazpiren egungo osaketa sozio-demografikoa kontuan hartuta (adineko pertsonen kopurua), eta oro har Europa osoan gertatzen den kontua da hau, ardatz honen bidez, udalerrian eta udalerrirako, garapen aukera berri bat sustatu nahi da errealitate horretatik abiatuta.

Egin beharreko lana:

Helburu nagusia Legazpi **garapen ekonomiko eta sozialean gero eta indartsuago agertzeko** moduan kokatzea da, batez ere adineko biztanleen multzoari eta mugitzeko zailtasunak dituztenei begira. Honako hauen bidez egingo da.

- Ildo honetan egiten diren ahaleginak bilduko dituen erakunde zehatz bat sortzea; beronen helburu nagusia jarduera eremu berri hau eta honen barnean Legazpirekin lotutako jarduera guztiak sustatzea izango da, *Legazpi Bai!* proiektuko gainerako lan ildoekin koordinatuz eta ikuskera integrala hartuta:
 - Esparru honen ikerketa, prestakuntza eta hedapena.
 - Izaera sozialarekin eta ekonomikoarekin lotuta, sor daitezkeen aukerak eta garapen proiektu zehatzak bilatzea.
 - Aktibo berri hau proiektatzea eta, jendea erakartzeko faktore den neurrian, kanpoan zabaltzea.

Gainerako ardatzekin dituen loturak:

A priori, garapen publikoaren esparruko plan estrategikoekin eta araudiekin (EJ, EB) eta pribatukoekin (adibidez, MCCren Zientzia eta Teknologia Planeko Osasun Ildoak) izan ditzakeen sinergiak identifikatzearekin lotuta, Ekonomia eta Enpresa Jardueraren arloarekin lotura estuak izango dituela aurreikusten da.

5. Lanaren Etorbizunaren ardatza

Izateko arrazoia:

Ekonomia eta gure lan egiteko modua aldatzen ari dira; etorkizuneko lanek eta lanbideek ez dute zerikusi handirik izango gaur egun egiten ditugunekin, ez edukien aldetik eta ezta lan egiteko moduaren aldetik ere. Errealitate horretatik abiatuta, sor daitezkeen aukera berriei leiho bat zabaldu nahi zaie ardatz honen bidez.

Egin beharreko lana:


Legazpin *lanaren etorkizunaren* inguruan ikerketa, prestakuntza eta hedapen egoitza nagusi bat ("**Etorkizuneko Jardueren Zentroa**") kokatzearen aukerarekin lotuta dago; batez ere **gazteei** zuzentzen zaie, eta helburu zehatz hauek ditu:

- Esparru horretako joeren eta mugimenduen ikerketa eta ezagutza.
- Esparru horiei zuzentzen zaizkien funtsak eta dirulaguntzak (estatukoak, Europakoak...) erakartzea.
- Prestakuntza, komunikazioa eta emaitzen eta hauetatik eratorritako aukeren hedapena, ikastaroen, mintegien, sareko sarreren eta abarren bidez, batez ere gure arreta gazteei zuzenduz.
- Lanbideratzeko aukerak eta etorkizuneko lanbide berriak bilatzea.
- Ikaskuntza bera sustatzea

Gainerako ardatzekin dituen loturak:


Aurrez azaldu dugunez, ardatz honek, nolabait ere, Ondare Historikoaren beste aldea adierazten du; eta beraz, Ekonomia eta Enpresa Jardueraren ardatzarekin oso lotuta dago, sor daitezkeen jarduera eta lanpostu berriei dagokienez.

- Lehen adierazi dugunez, **praktikan proiektu hau gauzatzekoan, ikuskera globala hartu beharko da, eta modu sistematikoan egin beharko da**, aldi berean 5 balio ardatzetariko bakoitzaren barnean garatzen diren *jardueren eta programa zehatzen arteko loturak, sinergiak eta inplikazio guztiak* kontuan hartuta, grafiko honetan adierazten denaren ildotik:



Artikulazioa eta ikuskera globala; abiapuntuko premisak

- Oro har, lehen aipatu den bezala, lan ildo bakoitzak arlo horren ordezkari izango den **erakunde edo entitate profesional berezi bat izango du gidari** (publikoa/pribatua edo zibila); eta helburu nagusia arlo horretako ahalegin zehatzak sustatzea eta bideratzea izango da, *Legazpi Bai!* proiektuko gainerako lan ildoekin eta ikuskera integralarekin ondo koordinatuz.
- Ildo horietako lana **Legazpi Bai! proiektua gorde eta bateratuko duen erakunde zentral** batek bideratuko du, bere osotasunean; erakunde –zibil– horren helburu nagusiak hauek izango dira:
 - Jardueren **koherentzia** eta proiektuaren ikuskera integrala bermatzea.
 - Gainerako udal politika eta ekimenekin bateratzea (Agenda 21, Kultura, Hirigintza...)



- *Legazpi Bai!* proiektuaren ikuspegi horrek **proiektu honetan epe luzera konpromisoa hartzea eskatzen du (10 urte)**
- **Erreferentziatzko esparru globala** izan behar du, eta herriko gainerako garapenerako ekimen publiko guztiak honen arabera egokituko dira.
- Proiektuak herritarren adostasuna eta parte hartzea izan behar ditu **euskarri eta sustatzaile**.
- Horregatik, proiektuak une jakin batean, **ziklo bakoitzean** indarrean dagoen **ikur politikotik haratago** joan behar du.
- **Irudi eta komunikazio proiektu** batez osatuko da, **estatuan eta nazioartean “Legazpi marka”** zabalduko duen proiektu batez.
- Hori guztia aintzat hartuta, *Legazpi Bai!* ikuspegia garatzeko **behar-beharrezkoa da** udalerraren etorkizuneko garapenean **eragile guztiek esku hartzea eta guzien lankidetzeta eta konpromisoa izatea (herritarrena eta herriko elkarteena, dendari eta enpresariena, bertako erakunde eta elkarte ofizialena...).**
- Horrez gain, **maila politikoan eta instituzionalean Udalak epe luzera begira harremanen sare sendo bat ezarriko du ahal duen neurrian enpresa komunitatearekin eta, oro har, herritarrekin**, horrela, *Legazpi Bai!* proiektuan zehaztutako ikuskera lortzen lagunduko duten aukerak identifikatzeko eta jarraipen egokia egiteko.